

KOMUNIKAZIO ZUZENA ETA PARTE HARTZEA

Parte hartu ahal izateko, informazio guztia jasotzea eta alde biko komunikazio bat sustatzea nahitaezko ikusten dau Udalak. Herriaren eritzia eta kolaborazioa ezinbestekoak dira, egiten dan udal kudeaketa, herritarrek daukien beharrian eta espektatibekin bat egin daian. Eremu honetan zer eskaintzen deutsu Udalak?

Bermeoko Udalaren ekimenak, proiektuak, erabakiak, jardunaldiak, kanpainak, emanaldiak, lehiaketak..., azken finean, Udalaren ekimen guztiei buruzko informazioa herritarren eskura jartzea, herritarrak informatuta egoteko eta gardentasuna bermatzeko, honako bideak erabilia:

- 1.- Komunikabideei zuzendutako lana.
- 2.- Bermeoko Udaleko web gunean agertzen diran edukiak, adibidez: albisteak, prentsa atala eta gai konkretuen inguruko web gune zehatzak egituratuta:

[Liburutegia](#)
[GIZ: Gazte informazio zerbitzua](#)
[Aita Guria Baleontzia](#)
[Behargintza](#)
[Turismoa](#)
[Euskera Saila](#)
[Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua](#)
[Bermeoko Udalaren Zaharren Egoitza: Sancti Spiritus](#)
[Toponimia](#)
[Bermeoko Udalaren Kirol Patronatua](#)
[Bermeoko Musika Eskola](#)
[Artxiboa](#)

- 3.- Gardentasuneko atala
- 4.- Urtekaria
- 5.- Hilero Bermeon Zer? Publikazioan gertakari, jakin beharreko eta ekimen zehatzak ere gaineratuta.

Alde bakarreko eskaintza gainditu eta zure parte hartzea sustatzeko gainera be honako aukerak dituzu:

1.- Inkestak: Urte birik behin, udalak eskaintzen dauzan zerbitzuen asetasun mailea neurtzen dau inkesta bidez, herritarren espektatibak ezagutzeko eta beharrianak antzemateko.

Azkenak, 2013an egin ziran. 500 inkestatik gora egin ziran eta emaitzak ikusgai dagoz, aurreko urteetako inkesten emaitzekin batera.

2.- Parte hartze Prozesua: Zure eritzia aurrez aurre emon eta partekatzeo aukera daukazu, gaien arabera antolatzen diran parte hartze taldeetan. **BERMEON ERABAKI** lemapean, herritarren ahotsa entzuteko, errespetatzeko eta erabagi parte-hartzaileak sustatzeko orain arte egindako lana aztergai daukazu, hurrengo gaikako taldeen deialdia jaso bitartean.

3.- Alde biko komunikazioa:

Sare sozialak horien bitartez herritarrengana heldu eta alde biko elkarrizketak posible egiteko.

[Bermeoko Udala: Facebook](#)
[Euskera Saila: Facebook](#)
[Bazinjuu \(Ghet\): Facebook](#)
[Berhaz: Facebook](#)

Gazteei zuzendutako informazio guztia jasotzeko: BERMEO GIZ

[Facebook](#), [LinkedIn](#), [Twitter](#), [Instagram](#), tuenti

Udal **eztabaidaqunea**, erregistratu eta zure eritzia web gunean publikatu eta eztabaida sustatu daiten.

4.- Abisuak Kexak eta iradokizunak: Udal jardunean parte hartzeko azken aukera honek udala eta herria hobetzen laguntzen dau, herritarraren eta udalaren arteko elkar lana sustatuta. Hurrengo atalean garatzen dira parte hartzeko bide honen aukera guztiak.

